

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**16/2026 Foru Dekretua, maiatzaren 5koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 14ko 13/2026 Foru Dekretuaren I. eranskinean hautemandako hutsaren zuzenketa**

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 24ko 13/2026 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien landa bideak egokitzeko laguntzen eta landa inguruneko erakundeek egindako nekazaritza jarduerak sustatzeko intereseko beste inbertsio batzuen oinarri arautzaileei.

Dekretu horren I. eranskineko 7.2 artikuluan, inbertsio taldeen araberako puntuazio irizpideei buruzko paragrafoan, 5.13 artikulua aipatzen da, baina aipamen hori 7.1.3 artikuluari egiten zaiola ulertu behar da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du 109.2 artikuluan:

**“109. artikulua. Egintzak errebokatzea eta okerrak zuzentzea**

(...) 2. Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.”

Xedapen hori aplikatuz, zuzendu egin behar da antzemandako akats materiala.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea Gobernu Kontseiluaren apirilaren 14ko 13/2026 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 7.2 artikuluan atzemandako akats materiala. Foru dekretu horren bidez, onespena eman zitzaien landa bideak egokitzeko laguntzen eta landa inguruneko erakundeek egindako nekazaritza jarduerak sustatzeko intereseko beste inbertsio batzuen oinarri arautzaileei.

Hau dioen lekuan:

7.2 Dekretu honetan, 4. artikuluko landa bideen taldeko tipologian, azpitalde bakoitzean, identifikatutako inbertsioetarako, puntu gehien lortzen dituzten inbertsioek izango dute lehentasuna. Puntu kopuru bera lortzen badute, aurrekontu handiena dutenek izango dute lehentasuna, salbu eta deialdian beste irizpide bat ezartzen bada.

4. artikuluko “beste inbertsio batzuk” tipologian definitutako inbertsioetarako, lehenetsitako taldeak zehaztutakoa izango da inbertsio bakoitzerako markatutako lehentasuna, gainerakoan aurretik.

Lehentasun bakoitzeko inbertsioen taldeari 5.1.3 artikuluko puntuazio irizpideak aplikatuko zaizkio talde bakoitzeko inbertsio bakoitzaren lehentasun ordena zehazteko, eta talde bakoitzak lehentasuna izango du hurrengoaren aurretik.

Eskaerak aurrekontuaren zenbatekoaren arabera lehenesteko, obraren aurrekontua soilik hartuko da kontuan, 4.6 artikuluan deskribatutako jarduketeki dagokien kostua gehitu gabe.

Hau esan behar du:

7.2 Dekretu honetan, 4. artikuluko landa bideen taldeko tipologian, azpitalde bakoitzean, identifikatutako inbertsioetarako, puntu gehien lortzen dituzten inbertsioek izango dute lehentasuna. Puntu kopuru bera lortzen badute, aurrekontu handiena dutenek izango dute lehentasuna, salbu eta deialdian beste irizpide bat ezartzen bada.

4. artikuluko “beste inbertsio batzuk” tipologian definitutako inbertsioetarako, lehenetsitako taldeak zehaztutakoa izango da inbertsio bakoitzerako markatutako lehentasuna, gainerakoen aurretik.

Lehentasun bakoitzeko inbertsioen taldeari 7.1.3 artikuluko puntuazio irizpideak aplikatuko zaizkio talde bakoitzeko inbertsio bakoitzaren lehentasun ordena zehazteko, eta talde bakoitzak lehentasuna izango du hurrengoaren aurretik.

Eskaerak aurrekontuaren zenbatekoaren arabera lehenesteko, obraren aurrekontua soilik hartuko da kontuan, 4.6 artikuluan deskribatutako jarduketeki dagokien kostua gehitu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 5a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA**

*Nekazaritza zuzendaria*

**DAVID FERNÁNDEZ SARABIA**